3 gramo KONTRATU
2 goilaratxo ENPLEGU
txorrotada bat GAZTE

GAZTEON ERREZETAK

GAZTEONTZAKO ENPLEGU PLANAK SUKALDATZEKO

EZ ZARA BEKA BATEKIN SARITUA IZANGO

GAZTEON ERREZETAK

GAZTEONTZAKO ENPLEGU PLANAK SUKALDATZEKO



GAUR EGUNGO LANGABEZIA ETA PREKARIETATE EGOERARI AURRE EGITEN LAGUNDUKO DUTEN GAZTEENTZAKO ENPLEGU PLANAK GARATZEKO PROPOSAMENAK

Esku artean duzun dokumentu hau garatu ahal izateko, **Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK)** eta bereziki *"enplegu eta gazteria"* lan taldean parte hartzen duten gazte eta entitateek lan handia hartu dute azken urteetan zehar.

Hasiera batean, lan talde honen zeregin nagusia administrazioek martxan jarritako enplegu planak hausnartu eta baloratzea izan zen. Oraingoan, gazteen langabezia eta lan baldintzak hobetzeko balio dezaketen ideia berriak proposatzea izan da erronka. Lortutako emaitza bereziki aberasgarria izan da, batik bat, prozesu honen parte izan diren pertsona eta kolektiboen aniztasunagatik.

Dokumentuan bertan azaltzen den bezala, ekimen honek ez du administrazioen lana egiteko asmorik, haiek baitira biztanleriaren eskubideak bermatzeko ardura dutenak. Alabaina, orain arte hausnartutako enplegu planetan somatu diren hutsune eta akatsak (batzuk txikiak, besteak oso larriak) gainditzeko ideiak eman nahi ditu, perspektiba eraikitzaile eta parte-hartzaile batetik.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

SUKALDATZEN HASI AURRETIK

Esku artean duzun dokumentu honi dagokionez:

*** Gazteen enplegua gazte batek betetzen duen eta eskubide guztiak dituen lanpostu bat da.** Inondik inora, gazteen eskubideak urratzea baimentzen duen lan mota bat. Horregatik, gazteriari zuzenduriko enplegu planek, GAZTEEN ENPLEGUA, ESKUBIDE ETA BALDINTZA BERDINTASUNEAN gazteek betetzen duten enplegua dela izan behar dute oinarri.

** Dokumentu honetan eginiko ekarpenak baliagarriak dira bai gazteen enplegu planetarako, bai eta gazteria planen enplegu arloetarako ere.

ZERGATIK DIRA BEHARREZKOAK

GAZTEENTZAKO ENPLEGU PLANAK ?

Gazteriaren egoera ez da sekula erraza izan. Betidanik, hezkuntza sistematik lan mundura jauzi egitea zaila izan da eta azken hamarkadetan, are zailago egin da gazteen laneratzea sustatzeko ezarri diren formulak direla eta hauek, lan eskubide, soldata eta abarren murrizketen eskutik etorri izan direlako. Zaurgarritasun egoera honek krisi ekonomikoaren garaian gazteek kalte handiagoak pairatzea eragin du, izan ere, eskubide sozioekonomiko gehienak enpleguaren esku dauden gizarte honetan, hurrengoa topatzen dugu:

**EAEn gazteen langabezia tasa %30 ingurukoa da.

**Enplegu bat duten gazteen %22ak ez du nahikoa dirurik bizitzeko.

**Gazteriaren %66ak ez du diru sarrerarik.

**Euskadin pobrezian bizi diren 10 pertsonatik 6k 35 urte baino gutxiago dituzte. (*Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea*).

**10 euskal gaztetik 6k gainkualifikazioa pairatzen dute haien lanpostuan (*Avance del mercado laboral asempleo-afi* buletina).

**Gazteei egiten zaizkien kontratu berrien %95a behin-behinekoak dira, eta hauetatik %42ak urte bete baino gutxiago iraungo du. (CJE).

**Gazteen erdiak edozein lan, edozein tokitan eta edozein baldintzatan onartuko luke (*Crisis y contrato social: jóvenes en la sociedad del futuro, Fundación de Ayuda contra la Drogadicción*).

**Gazteek lanetik kaleratuak izateko aukera gehiago dituzte: "2008 eta 2013 artean, behin behineko langileen enplegu suntsipena behin betiko langileen enplegu suntsipena baino lau aldiz handiagoa izan zen. Behin behineko langile hauek gazteak badira, proportzioa sei eta batekoa da".

**Gazteen soldata eta bataz besteko soldataren arteko arrakala ia 13.000 eurokoa da urtean (bataz besteko soldata 26.535 eurokoa da, gazteena 13.541koa, aldiz).

Gazteriaren prekarietatearen aurpegi anitzak azaltzen dituen **www.prekarioka.org webgunean azaltzen diren beste hainbeste gako.

Horregatik guztiagatik, gazteak berdintasun baldintzetan eskubide osoko hiritar gisa garatu daitezen lagunduko duten planak behar dira.

AURKIBIDEA

NOLA SUKALDATZEN DA GAZTEENTZAKO ENPLEGU PLAN BAT? 05

GOZARIA, BAZKARIA EDO AFARIA. ZEINTZUK DIRA HELBURUAK? 06

MAHAIKIDEAK. NORI ZUZENDU BEHAR ZAIO? 07

ZARTAGIN EDO LAPIKO? . NOLA GARATU BEHAR DA? 09

AURKEZPENA ERAGINAREN AURRIKUSPENA ETA EMAITZEN ARGITARATZEA 10

ERREZETAK 11

SENDATZEN DUTEN ERREZETAK. PREKARIETATEAREN AURKAKO NEURRIAK 13

ERREZETA BEREZIAK. EKINTZA POSITIBORAKO NEURRIAK 26

INDARRA EMATEN DUTEN ERREZETAK. SUSTAPEN NEURRIAK 36

DINARRIZKO ERREZETAK. NEURRI OROKORRAK 47

** GAZTE ENPLEGUA gazteek gauzatutako eta eskubide guztiak dituen lanpostu bat da. Inondik inora, eskubide gutxiagoko enplegua.

** Baliagarria gazteen enplegu planak eta gazteria planetako enplegu arloetarako.

GAZTEENTZAKO ENPLEGU PLANA

KOORDINAZIOA

INSTITUZIO ARTEKOA

SAIL EZBERDINEN ARTEKOA
Enplegua / Sustapen Ekonom.
+
GAZTERIA

GIZARTEA ETA GIZARTE ERAGILEAK

HELBURUAK

* Gazteen ENPLEGU SARBIDEA hobetu.

** Gazteen LAN BALDINTZAK HOBETU eta PREKARIETATEA MURRIZTU.

NORI ZUZENDUAK

GAZTEAK (<30)

GIZARTEA OROKORREAN

* Gazteengan duen eragina **justifikatu.**

** Gazteentzako **kupoak gorde.**

EMAITZAK

AURRIKUSPENA: adierazleak, oinarri marrak eta lortu nahi diren helmugak.

EBALUAZIOA: emaitzak argitaratu eta aurrikuspenekin alderatu.

NEURRIAK

NEURRI OROKORRAK

PREKARIETATEAREN AURKAKO NEURRIAK

Kalitatezko Enplegua sustatzeko protokoloa.

Gazteen Prekarietatearen prebentzioa:
*formazio eta sentzibilizazioa gazte, teknikari eta politikarientzat.
*Gazte-Label.
*Kontrasterako Gazte Batzordea.
**Gazteentzako Kalitatezko Enplegu Planak* enpresetan.

Diru publikoz ordainduriko neurrietatik **kontratazio formula bereziak kentzeko programa.**

Gazteriaren aniztasunari arreta jarri.

Gazteen iruzurrezko lan baldintzen lan ikuskaritzak:
*kontraturik gabeko lana.
*enpleguak eskutatzen dituzten bekak.
*autonomo faltsuak.
*lan osasuna.

Gazteen lan baldintza "berrien" informazio eta kontrola:
*gazteen lan emigrazioa.
*gazte ekintzaile eta autoenplegatuak.

EKINTZA APOSITIBORAKO NEURRIAK

Gazteriari loturiko Klausula Sozialak kontratazio publikoan.

Neurri orokorretan **gazteentzako kupoak gorde.**

Enplegu Zerbitzu Publikoetan **gazteentzako arreta espezializatua.**

Belaunaldi arteko erreleboaren sustapena.

Gizarte laguntzak lortzeko oztopoak kendu.

NEURRI AKTIBOAK

KONTRATAZIOAREN SUSTAPENA

Gazteentzako kalitatezko kontratazioari laguntzak:
*lehen enplegua.
*atzerrian esperientzia.
*kontratazioa.
*eta abar.

Gazteen lan emigrazioaren **itzulera laguntzak.**

ENPLEGURAKO FORMAZIOA

Laneratzea bermatua duten sektoreetan:
*kontrastatutako eskaera.
*kontratazio konpromezua.

Gaitasunen aitorpena.

EKINTZAILETZA

Helburu kualitatiboak dituzten neurriak:
*lan baldintza egokiak.

NOLA SUKALDATZEN DA GAZTEENTZAKO ENPLEGU PLAN BAT?

GOZARIA, BAZKARIA EDO AFARIA

ZEINTZUK DIRA GAZTEEN ENPLEGU PLAN BATEN HELBURUAK?

Berebizikoa da edozein enplegu planek lortu nahi dituen helburuak eta egin nahi duen ibilbidea ondo zehaztea. Horrela, plan hauen baitan martxan jartzen diren neurriak haien artean koherentzia mantendu eta erabilitako baliabide eta ahaleginek egoera hobetzeko balioko dute.

Edozein kasutan ere, hauek dira proposatutako helburuak:

I. HELBURUA: Gazteek enplegua lortzeko aukerak hobetzea.

II. HELBURUA: Gazteen lan baldintzak hobetu eta pairatzen duten prekarietatea murriztea.

ZERGATIK HAUEK ETA EZ BESTE BATZUK?

Helburuak zehaztu ahal izateko kontrastaturiko abiapuntu bat behar da. Gazteen kasuan eta lan munduari dagokionez, hauek dira topatzen diren bi arazo nagusiak:

* Langabezia tasa oso altuak eta enplegua lortzeko zailtasun handiak (I.go helburuarekin harremana).

** Gazteen prekarietate maila altua eta prekarietate honek duen babes legala (II helburuarekin harremana).

Horrela, helbururik ez baldin bada zehazten, martxan jartzen diren neurriak kontraesankorrak izan daitezke, norabide berean arraun egin gabe.

Bestalde, helburuetan langabeziaren auzia soilik kontutan hartzen baldin bada eta lan baldintzak alde batera uzten badira, honek planaren neurri zehatzetan islada izango du: ez da prekarietatearen aurkako neurri zehatzik diseinatuko.

AURREKARIAK

Eusko Jaurlaritza. *Enplegua Sustatzeko Programa.* "Euskal gazteriaren enplegugarritasuna eta laneratzea sustatu".

Bizkaiako Foru Aldundia. *Enplegatzea: Gazteentzako Enplegu Plana.* Plan honek ez du helbururik zehaztu, ez behintzat publiko egin denik.

Vitoria-Gasteizko Udala. *III Gazte Plana*ren 1.go lerroa. "Gazteak emantzipatzeko baldintza egokiak garatzen dituen Hiria garatu".

Espainiako Estatua. *Gazteen Enplegua eta Ekintzailetza Sustatzeko Estrategia.* "Gazteen langabezia tasa jaitsi eta orokorra baino altuagoa izan dadin eragiten duten arrazoi estrukturalak landu", "enplegugarritasuna hobetu", "kalitatea eta egonkortasuna hobetu", "aukera berdintasuna sustatu" eta "ekintzailetza gogoak sustatu".

Europar Batasuna. *Gazte Bermea.* "25 urtetik beherako gazte guztiek lan eskaintza on bat, hezkuntza aukera bat edo praktika batzuk egiteko eskaintza jasotzea haien hezkuntza prozesua bukatu edo langabezian geratu ostean".

MAHAIKIDEAK

NORI ZUZENDU BEHAR ZAIO GAZTEEN ENPLEGU PLAN BAT?

Gazteen enplegu plan bat dela kontutan hartuta, bertan barneratutako ekimen eta neurriek hurrengo hartzaileak izango dituzte:

*Gazteak. Hortaz, neurriek adin muga bat ezarri beharko dute hartzaileak adinagatik aukeratzeko. Adin muga hauek ezberdinak izan daitezke, adin tarte bakoitzak dituen behar berezituen arabera diseinatu behar baitira neurriak.

**Gizartea orokorrean. Horrela izatekotan, alegia, gazteen enplegu planen barne, gizarte osoari zuzenduriko neurriak jasotzea, bi baldintza bete beharko dituzte hauek:

*Neurriak bereziki gazteriarengan eragina duela justifikatu beharko da. Justifikazio hau egiaztatu daitezkeen datuen bitartez egingo da.

**Gazteentzako kupoak gorde beharko ditu. Kontutan hartuta gazteen enplegu plan bat garatu nahi dela, gazteei zuzenduriko kupo hauek gehiengo bat izan beharko dira.

***Gazteei zuzendurik ez dauden enplegu planen kasuan, gazteei zuzenduriko kupoak ere gorde behar direla iritzi da. Honakoan, kupo hauek gazteek lan egiteko adinean dagoen jendearen bataz bestekoaren baitan suposatzen duten ehunekoaren arabera gordeko dira (EAEaren kasuan %23 inguru -255.516 (18-30) eta 1.102.764 (18-65))

Gazteriari bereziki zuzendurik ez dauden neurriek, behin garatuak, gazteekiko izan duten eragina justifikatu behar dute ebaluazio baten bitartez.

Gazteriaren egoera hobetuko ez duten neurriak gazteen enplegu plan batean barneratzeak ez duelako zentzurik (gazteria politika erretorikoak bezala izendatzen dira hauek). Hala ere, hausnartutako hainbat gazte enplegu planetan aurkitu dira horrelakoak:

*__Gazteriak pairatzen duen egoeran eragin positiborik ez duten eta gizarte osoari zuzenduriko neurriak__ (adibidez, enpresak handitzeko eskatutako maileguen interesak ordaintzen dituen dirulaguntza bat).

Gizarte osoari zuzenduriko neurriak, gazteei bereziki zuzenduriko beste neurri batzuekin lagunduak; eta behin biak alderatuak, **gazteentzako baldintza kaxkarragoak sustatzen dituztenak (adibidez, kontratu mugagabeak sustatzen zituen neurri bat, adin mugarik gabe, eta gazteentzako praktika kontratuak sustatzen zituen beste bat. Bi neurriak alderatuta, gazteek kontratu mugagabe bat sekula ez zutela lortuko ikusten zen, haiek kontratatzeko askoz merkeagoak diren praktika kontratuak ere diruz lagunduak baitzeuden).

***"Gazte" ezizenarekin argitaratzen diren neurriak baina **gazteei zuzendurik ez daudenak** (adibidez, "gazte-" aurrizkia enpresa sortu berriak izendatzeko erabiltzen duen zerbitzu bat, bertan gazteak eta beste edonor laguntzen delarik, adina kontutan izan gabe eta gazteak lehenesteko neurririk jarri gabe).

****Gazteei zuzenduriko neurriak direlakoan argitaratzen direnak, baina **baldintzak aztertzerakoan, oztopoak jarriz gazteak kaltetzen dituztenak** (adibidez, gazteen ekintzailetza sustatzeko neurrietan, ekiteko arloan eskatzaileak lan esperientzia izatea lehenesten denean gazte asko geratzen dira kanpoan lan esperientzia ez izateagatik).

Horregatik guztiagatik, berebizikoa da gazteen enplegu planek haien helburua momentu oro argi izatea eta, beraz, neurrien hartzaileak nortzuk diren ondo zehaztea.

ZARTAGIN EDO LAPIKO

NOLA GARATU BEHAR DA GAZTEENTZAKO ENPLEGU PLAN BAT?

Edozein enplegu planek, gazteria zeharkako lerro moduan landu beharko luke garatzen dituen neurri guztietan. Aldi berean, plan hauen garapena ikuspegi orokor batetik egin beharko litzateke, garapen ekonomikoaren ikuspuntutik bakarrik egiteak, gizartearen eskubideen urraketan eragin dezakeelako, eta bereziki, gazteriarena. Alegia, enplegu planek zein enplegu politika publikoek, aukera berdintasuna sustatzen duen enplegua sortzea izan beharko lukete helburu.

Hau lortzeko, garrantzi handien duen gakoetako bat koordinazioa da; izan ere, konpetentzia eta interes ezberdinek bat egin behar baitute ezarritako helburuak lortzeko bidean. Horretarako, gutxienekoak dira hiru koordinazio mota:

SAIL EZBERDINEN ARTEKO koordinazioa.

Bai gazteen enplegu planak, baita gazte planetako enplegu arloen sustapena, bi sail ezberdinen arteko elkarlanetik jaio behar dira, alegia, GAZTERIA arloa eta ENPLEGU edo SUSTAPEN EKONOMIKOko arloa.

Gehienetan, planak garatzeko lehen pausuak ematen direnean (ideiak batu eta jaso) koordinazio hau ez da ematen eta, askoz jota, neurriak ezagutzera ematerakoan izaten da koordinaziorik: alde batetik, gazteria planak Gazteria Sailean idazten dira, enpleguan eragiteko duten gaitasuna murriztuz eta, bestalde, enplegu planak Enplegu edo Garapen Ekonomikoko sailetan garatzen dira, askotan, gazteen behar eta interesak alde batera utziz.

Horregatik berebizikoa da sailen arteko elkarrizketa eraikitzaile bat sustatzea, eta koordinazioa informazio trukea baino gehiago izatea.

INSTITUZIOEN ARTEKO koordinazioa.

Maila administratibo ezberdinetako instituzioen artean dagoen eskuduntza banaketak, administrazio batzuk eta besteek garatutako gazteen enplegu plan ezberdinen artean indarrak batzeko koordinazioa beharrezko egiten du. Azken finean, neurri batzuk eta besteak haien artean bikoiztu edo oztopa-tzea ekiditeko.

GIZARTEA ETA GIZARTE ERAGILEEKIN koordinazioa.

Beharrezkoa da enplegu planek gizartearen iritzia eta parte hartzea kontuan izatea, bereziki, neurrien hartzaile izango den gizartearen atal bakoitzarena. Horrela, gazte enplegu planen baitan, gazteek ostatutako entitate, sindikatu eta gazteen beraien ikuspegia barnebildu beharko litzateke. Honek, sustatutako neurriek gazte hauen behar eta interesak asetzen dituztela egiaztatuko luke eta haien egoera are gehiago kaskartzea ekiditen lagunduko luke.

Enplegu planek proposatzen dituzten neurriek gizartearengan, eta bereziki gazteriarengan, zein eragin izango duten aurrikusi behar dute. Batik bat, prekarietatea, zaurgarritasun ekonomikoa eta eskubideen urraketari dagokionez.

Berebizikoa da plan bakoitzak bere aurrikuspenak egitea, kontuan izanik aurrikuspen positiboak eta negatiboak egon daitezkeela.

Horrez gain, behin neurriak garatu eta amaituta, beharrezkoa da hauen emaitzen balorazioa publiko egitea, emaitzak aurretik egindako aurrikuspenekin erkatuta, hurrengo deialdietan edo neurri berriak garatzerakoan, ikasitakoa erabili ahal izateko.

Hala ere, emaitza hauek ez dituzte soilik 'betetako plazak', 'egindako eskaerak' edo 'sinatutako paperak' bezalako adierazleak kontutan hartu behar. Aldiz, kasuan kasu esanguratsuak diren datuak islatu beharko dituzte, esaterako, kontratazioa sustatuko duten neurriek, zenbat pertsona kontratatu diren ebaluatzeaz gain, beste adierazle batzuk ezarri beharko dituzte: diruz lagundutako kontratuen epea bukatzerakoan, jendea enpresetan kontratatu den ala ez, zein kontratu mota egin dieten, zein epekoa edo ea lagundutako kontratazio hauek aurretik zeuden lanpostuak estali dituzten ala ez.

ERAGINAREN AURREIKUSPENA ETA EMAITZEN ARGITARATZEA

AURKEZPENA

ERREZETAK

Dokumentu honetan proposatzen diren neurriak ez dira gazteen enplegu plan batean barnebildu beharko liratekeen neurri bakarrak, ezta guztiak ere. Haatik, orain arte aztertutako planetan hemen proposatzen diren neurri gehienak ez ziren barnebiltzen eta gazteentzako kalitatezko enplegua sustatzeko bidean lagundu dezaketelakoan proposatzen zaizkie administrazio eta eragile ezberdinei.

Argiago suertatu dadin, proposaturiko neurriak hiru talde handitan batu dira: neurri **AKTIBOAK, EKINTZA POSITIBOA** sustatzen duten neurriak eta **PREKARIETATEAREN AURKAKO** neurriak. Hortaz gain, enplegu arloan eta arlo sozioekonomikoan gazteen ongizatea bermatzen lagundu dezaketen hainbat **FAKTORE OROKOR** zehazten dira azken puntuan.

SENDATZEN DUTEN ERREZETAK

PREKARIETATEAREN AURKAKO NEURRIAK.....13

*Kalitatezko enplegua sustatzeko protokoloa 13

*Gazteen prekarietatearen prebentzio programa 15

*Diru publikoz ordainduriko neurrietatik kontratazio formula bereziak kentzeko plana 19

*Gazteriaren aniztasunari arreta jarri.....20

*Gazteen iruzurrezko lan baldintzen lan ikuskaritzak 21

*Gazteen lan egoera berriak 23

ERREZETA BEREZIAK

EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK 26

*Gizarte Klausulak eta gazteria kontratazio publikoan 27

*Neurri orokorretan gazteentzako kuotak 31

*Enplegu Zerbitzu Publikoetan arreta espezializatua 32

*Belaunaldi arteko ordezkapena 33

*Gizarte laguntzak eskatzerakoan erraztasunak 35

INDARRA EMATEN DUTEN ERREZETAK

NEURRI AKTIBOAK 36

*Gazteen kalitatezko kontratazioari laguntzak 37

*Lanagatik emigratutako gazteak itzultzeko laguntzak 39

**Formazioa laneratzea bermatzen duten sektoreetan 41

**Gaitasunen aitorpena 43

***Helburu kualitatiboak dituzten ekintzailetza neurriak .....

.....45

DINARRIZKO ERREZETAK

MEDIDAS GENERALES 47

*Enplegu publikoaren sorrera 49

*Negoziazio kolektiboa eta hitarmen duinen sinadura 49

*Enpleguaren banaketa 50

*Soldata ezberdintasunen murrizketa 50

*Lan egoeratik harago eskubideak bermatzen dituzten gizarte zerbituzak garatu.....51

PREKARIETATEAREN AURKAKO ERREZETAK

KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROTOKOLOA

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: prekarietatearen aurkakoa

OSAGAIAK:
*enplegu goilarakadatxo batzuk.
*bi kilo kalitate.
*itxaropen dosi handiak.

PRESTATZEKO ERA

Langabezia tasa altuez gain, gazteek gehien pairatzen duten arazoetako bat lan prekarietatea da. Hala ere, prekarietate hau krisi ekonomikoa hasi aurretik bazegoen presente gazteen bizitzetan eta, azken urteetan, areagotu besterik ez da egin. Horregatik, berebizikoa da gazteei zuzenduriko edozein enplegu planek prekarietate hau murrizteko neurriak ezartzea, epe motz, ertain zein luzera begira.

Hori dela eta, prekarietateari aurre egiteko eta kalitatezko enplegua sustatzeko protokolo edo ekintza plan bat zehaztu beharra ikusten da, hiru zereginetan banaturik:

1* Lehenik eta behin, protokoloak gazteriarentzako lan baldintza duinak definitu beharko lituzke, adierazle neurgarri eta zenbagarriak ezarriz. Planak eragina duen lurraldearen arabera (udala, lurralde historikoa...) ezarritako enplegu duinaren baldintza hauek lortzerako orduan oztopo batzuk ala beste identifikatuko dira eta, horrenbestez, hauei aurre egiteko neurriak jarriko dira. Hala nola ere, **lurralde bakoitzeko gazteekin adostu** beharko dira neurriok, pertsona hauek izango baitira lan baldintza duinak definitu beharko dituztenak (edo gutxienez onartu beharko dituztenak).

2** Bigarrenez, protokolo honek aurrikusten dituen neurri eta helburuak betetzeko epeak zehaztu beharko dira.

3*** Bukatzeko, protokoloak ezarritako helburuak lortzen direnerako protokoloak berak hainbat kontrol eta egonkortasun neurri aurrikusi beharko ditu, hauen bitartez gazteek lortutako lan baldintza duinak mantendu ditzaten.

ERREZETAREN JATORRIA:
Ez da antzeko neurririk ezagutzen, ez behintzat garatzera heldu direnik.
*Proposamen hau ***Datorkigunea 2010-2011***-tik jaso da: "Lan duina lortzeko protokoloak ezarri: gutxieneko lan baldintzen definizioa egin, eta horiek lortzeko epeak finkatu".

GAZTEEN PREKARIETATEAREN PREBENTZIO PLANA

ZAILTASUNA: ***
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: prekarietatearen aurkakoa

OSAGAIAK:
*errealitate dosi bat.
*nahibesteko kotizazioa.
*zazpi azaleko kopeta gutxi.

PRESTATZEKO ERA

Aurreko neurriarekin bat eginez, informazio, sentsibilizazio eta zabalpen programa bat garatzea beharrezkoa ikusten da. Honen bitartez, gazteriaren prekarietatearen errealitatea eta honen ondorio latzak ikustaraziko lirateke gizartearen sektore ezberdinen artean eta, horrenbestez, egoera aldatzeko beharrezkoak diren erremintak garatu ahal izateko baldintzak sustatuko lirateke. Berebizikoa da horrelako plan batek prekarietate honen alde ezberdinetan dauden eragileekin lan egitea:

* Administrazio publikoa, maila tekniko eta politikoan, enplegu politika publikoen sustatzaileak diren heinean.

** Enpresak eta orokorrean soldatapeko langileak dituzten entitateak, dirua aurreztu nahian gazteentzako kontratazio formula bereziak erabiltzen dituztelako batzutan).

*** Gazteria, prekarietateak bere gain zuzenean eragiten duelako eta, lan eskubideen eta lan baldintza kaxkarren ondorioen inguruan beharrezkoa duen informazio eta formazioa falta zaiolako.

Hauek izan daitezke Prekarietatearen Prebentzio Planean barneratzeko hainbat neurri:

****1 LAN ESKUBIDE ETA PREKARIETATEAREN INGURUAN GAZTEEI ZUZENDURIKO FORMAZIOA.** Ikastaro eta tailer hauek, lan eskubideak eta prekarietatearen inguruan jardungo dira. Gazteek haien lan eskubideak ezagutu, kontratazio formula berezi ezberdinek eskubide hauek nola urratzen dituzten identifikatu eta formula hauek epe motz, ertain eta luzean gazteengan sortzen dituzten arazoak antzematea izango da helburu nagusia.

ERREZETAREN JATORRIA:

****1** Gazteei zuzenduriko ikastaroak: sindikatu ezberdinek garatutakoa eta Gasteizko Udaleko Gazteria Atalak garatutako AHOLKULARITZA JURIDIKOA.

**2 GAZTEEN LAN BALDINTZA ETA PREKARIETATEAREN INGURUAN ADMINISTRAZIOKO POLITIKARI ETA TEKNIKARIEI ZUZENDURIKO FORMAZIO ETA SENTZIBILIZAZIOA.

Ikastaro eta tailer hauek, lan eskubideak eta prekarietatearen inguruan jardungo dira, xedea hurrengoa izanik: gazteriari zuzenduriko politika publikoak garatzeko ardura duten pertsonek gazteriaren egoera sozioekonomikoa ezagutu eta gauzatzen diren neurriek gazteen gain dituzten ondorioak hausnartzea. Azken finean, programa ezberdinen funtsa eta zehaztasunak erabakitzen dituzten pertsonek gazteen behar eta nahiak ezagutzean datza helburua, haien lanak gazteen enpleguaren kalitatea hobetzen laguntzeko eta ez alderantziz.

ERREZETAREN JATORRIA:

****2 Administrazioko kargu politiko eta teknikoei zuzenduriko ikastaroak:** EGK-k ikastaro irekiak antolatu ditu eta hauetara aipatutako profilak gonbidatu ziren. Izen emateen faltagatik bertan behera geratu ziren.

**3 ENPLEGUKO GAZTE LABEL-A

Enplegu arloan gazteei zuzentzen zaizkien neurriei gazteek beraiek oniritzia eman eta hobekuntzak proposatzeko sistema. Sistema honek, gazteen enplegu duina sustatu eta prekarietateari aurre egiten dioten neurriak sarituko dira, praktika onak sustatuz.

ERREZETAREN JATORRIA:

****3 Gazte Label:** proiektu eta programa publikoak baloratzeko etiketa ezberdinak existitzen dira, gazteen ikuspuntuarekin loturik ez daudenak: Kalitatezko Q-a, Leed zirutagiria (iraunkortasuna), eta abar.

**4 KONTRASTERAKO GAZTE BATZORDEA.

Hausnarketa, ikerketa eta kontrasterako batzordea da hau, bertan gazteriak ordezkaritza duelarik. Talde honen helburua administrazioak garatutako gazte enplegu politikak hausnartu eta hobekuntza gomendioak ematea da, beti ere neurri bakoitza martxan jarri aurretik edo behin martxan jarrita deialdi berriei begira.

ERREZETAREN JATORRIA:

****4 Comisión Joven de Contraste:** Batzorde honen lana beste arlo batzuetan dagoeneko existitzen diren batzordeen lanarekin bat egiten du, hala nola, Gizarte Kontseilua, COPTV edo CES-a.

**5 GAZTEENTZAKO KALITATEZKO ENPLEGU PLANAK ENPRESETAN.

Gazteriaren prekarietateak ez du jatorri bakarra, ezta ondorio bakarra ere. Alde batetik, prekarietate hau baimentzen duen arautegi eta legeez gain, kontratazio formula bereziak sustatzen dituzten hainbat programa publiko topatu daitezke (lurralde maila guztietako administrazioek babestua). Bestalde, enpresek zeresan handia dute gazteen prekarietatearen alorrean, izan ere, haiek baitira gazteak kontratatzeko erreminta hauek erabiltzen dituztenak.

Hortaz, administrazioak enplegu alorrean gazteriari zuzenduriko politika publikoak berbideratzearekin batera, enpresekin ere lana egin beharko litzateke, enpresen erantzukizun soziala gazteen kalitatezko kontratazioa sustatzera bideratuz.

Horregatik guztiagatik, enpresen Gizarte Erantzunkizun Korporatiboa hurrengo puntuen inguruan lantzea proposatzen da:

1* Kontratazio formula berezien erabilera gutxitu eta mugatzea. Eta, erabiltzekotan, praktikak zein bekak formaziorako erabiltzea, ez lanpostuak ordezkatzeko.

2* Gazteak lan baldintza duinetan kontratatzearen garrantzia eta gazteek enpresei eman diezaieketen balio gehigarria.

3* Belaunaldien arteko ordezkapenaren garrantzia.

ERREZETAREN JATORRIA:

5 Gazteentzako kalitatezko enplegu planak: lan mundua zein ekimen ekonomikoek eragina duten beste arlo batzuetan eragiteko bultzatzen diren plan ezberdinak garatzen dira gaur egun: berdintasun planak, iraunkortasun planak, eta abar.

DIRU PUBLIKOZ ORDAINDURIKO NEURRIETATIK KONTRATAZIO FORMULA BEREZIAK KENDU

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: prekarietatearen aurkakoa

OSAGAIAK:
*kilo bat lan eskubide.
*errespetu tanta batzuk.
*txalo bero bat.

PRESTATZEKO ERA

Enplegu planek gazteen enplegua sustatzeko neurriak martxan jartzen dituzte, askotan, kontratazio formula berezietan (formazio kontratuak, praktika kontratuak eta abar) edo kontrataziorik gabeko lan formuletan (bekak, praktika ez laboralak, eta abar) oinarritzen direlarik. Hauek gazteen lan eskubideen murrizketa bat suposatzen dute eta horregatik ezinbestekoa da lan eredu hauei finantzaketa publikoa kendu eta kontratazio duinera berbideratzea.

Administrazioen ardura da herritarren ongizatea bermatzea eta pertsona guztiek aukera eta tratu berdina izatea, eta horregatik berebizikoa da diru publikoak gazteen prekarietatea ez finantzatzea.

Diru Publikoz Ordainduriko Neurrietatik Kontratazio Formula Bereziak Kentzeko Plan honek estrategia eta epe zehatzak izango ditu, ondo definituak eta ebaluagarriak. Horrez gain, hurrengoa izango du helburu nagusia: finantziazio publikoa jasotzen duen edozein enplegu planek (enpresei zuzendurikoa zein administrazioan bertan gauzatzekoa) edo administrazioarentzako obra eta zerbitzu kontratazioek prekarietatea sustatzen duten lan harremanak minimora murriztearen beharra ezartzea, betiere, enpresetan lan eredu honetarako maximo jakin bat ezarriz (adibidez, ehuneko txiki batean ezarriz).

Beraz, plan honen bitartez, kontratazio formula bereziak eta kontrataziorik suposatzen ez duten lan harremanak gazteei haien lan eskubideak bermatzen dizkieten kontratu motengatik aldatzea lortuko da, gazteriaren aukera berdintasuna bermatuz.

ERREZETAREN JATORRIA: Ez da antzeko neurririk ezagutzen.

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: prekarietatearen aurkakoa

OSAGAIAK:
*hiru edalontzi errealitate.
*ikuspuntu barneratzaile bat.
*nahibeste perspektiba.

PRESTATZEKO ERA

Gazteria ez da pertsona talde homogeneo bat, gizartea bera bezain anitza da. Eta hargatik, edozein gazte enplegu planetan berebizikoa da aniztasun honi so egin eta gazteriaren barne dauden kolektibo ezberdinen behar zehatzen hausnarketa sakona bideratzea.

Aldi berean, plan hauetan proposatzen diren neurri eta programak kolektibo hauetako gazteekin adostuak eta kontrastatuak izan behar dira, bai eta gizarte eragile ezberdinekin, dokumentu honen hasieran aipatu den bezala. Eta, bereziki, kolektibo espezifikoei dagozkien eta dagoeneko martxan dauden planetan barnebildutako neurriak sustatu behar dira. Honen hainbat adibide zehazten dira:

Ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana. Honen azken edizioan hurrengo neurria barnebiltzen zen:

"20) Beste norbaiten kontura lan-merkatuan sartzeko lanbide-gaitasuna hobetzeko programetan ijito-komunitatearen partaidetza sustatzeko neurriak bultzatzea, baita familia-kargak dituzten emakume ijitoen eta gazteen lehentasun-ekintzak ere". Tamalez, neurri honen lehentasun maila ertaina izan da.

Inmigrazio, Herritartasun eta Kulturarteko Bizikidetzari buruzko III. Plana 2011-2013. "2) Enplegua, prestakuntza eta eskola arrakasta izatea Euskadin dauden giza baliabideak mobilizatzeko, erabateko herritartasuna lortzeko eta integratzeko bideak diren aldetik, produkzio sarea indartzea" bigarren lerro estrategikoaren baitan, neurri hau azpimarratu daiteke:

"2.1.5) Gazte atzerritarrak gizarteratzeko ibilbideak (enplegagarritasuna, prestakuntzaren bitartez eta enpresetan praktikak eginez)". Tamalez, gazteei zuzenduriko enplegu neurrietan honakoan ere praktiken eredua lantzen da eta ez kontratazio estandarrarena.

Gizarteratze aktiboko III Euskal Plana. 2012-2016. Lehen helburu estrategiko gisa hurrengoa jasotzen da: "pertsona kaltetuenei gizarteratze eraginkorra sustatzea enpleguaren aktibaziotik abiatuta, pobrezia eta gizarte-bazterkeria murrizteko, errenta-maila duina ziurtatuz eta enplega daitezkeen pertsonei enplegu duina lortzeko aukera emanez". Estrategia honen pean, 1.4. helburu orokorra barneratzen da "enpleguan pobrezia garatzeari aurrea hartzea, enpleguaren kalitatea eta iraunkortasuna areagotuz". Prekarietatea suposatzen duten kontratazio formulen aurrean enpleguaren kalitatea eta iraunkortasuna lantzen du honek.

Berdintasunerako VI Euskal Plana. Ez ditu emakume gazteei zuzenduriko enplegu neurririk.

GAZTEEN ANIZTASUNARI ARRETA JARRI

GAZTEEN IRUZURREZKO LAN BALDINTZEN LAN IKUSKARITZAK

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: prekarietatearen aurkakoa

OSAGAIAK:
*koilarakadatxo bat aurrekontu.
*200 g borondate.
*300 ml begi adi.

PRESTATZEKO ERA

Prekarietatearen baitan ematen diren hainbat baldintza, tamalez, legeak baimentzen dituelarik ematen dira eta enpresek normaltasun osoz baliatu ditzakete haien egunerokotasunean. Hala ere, horretarako lan ikuskaritzak sustatuz beste baldintza asko ekiditerik badago, batik bat, lan ikuskaritza hauek gazteen eta beste kolektibo batzuen lan baldintza prekarioak antzemateko erabiltzen badira. Hortaz, lan ikuskaritza gehiago eta zehatzagoak egitea eskatzen da, eta horretarako, hainbat ildo proposatzen dira:

**1 KONTRATURIK GABEKO LANGILEAK

(edo lan egiten dituzten orduak baino kopuru txikiagoko kontratua duten langileen ikuskaritzak). Badago kontraturik gabe lan egiten duen jendea eta baita, ordu gutxi batzuetarako kontratua izanda kopuru honen laukoitza lan egiten duen jendea (ordu extrak izan gabe). Lan munduaren errealitate hau bereziki ostalaritzan eta zaintza lanetan topatu daiteke, hauetan gazte asko daudelarik, eta bertan lan eskubideak guztiz murriztu ohi zaizkie langileei.

**2 AUTONOMO FALTSUAK

Enpresa batean kontrataturik egon beharko lukeen pertsona bat autonomo gisa lan egitea ez da bidezkoa eta pertsona honen eskubideak nabarmenki urratzen ditu, hala ere, "autonomo faltsuen" fenomenoa gero eta zabalduagoa dago eta egoera oso larria bilakatzen ari da. Horregatik, berebizikoa da ekintzailetza gazteen lan baldintzen prekarizaziorako aitzakia ez bihurtzea.

**3 LAN POSTUAK ESTALTZEN DITUZTEN BEKA ETA PRAKTIKAK

Krisi ekonomikoaren hasieratik hona eta praktikak egiteko baldintzen malgutzearen ondorioz, kontratazio mota honen kopurua gero eta handiagoa da. Horrez gain, gero eta lan egiteko beka gehiago eskaintzen direla ikus daiteke. Hauek, askotan, ez dira formazio bekak eta, aldiz, lan eskubide guztiak bermatu beharko lituzketen lan postuak ezkutatzen dituzte.

Azkenik, ikasketen barruan derrigorrezkoak diren praktika aldiak ikuskatu behar dira bereziki (bai Lanbide Heziketan eta baita unibertsitatean ere), praktika hauek heziketarako bideratzen direla ziurtatuz (heziketa hitzarmena betetzen delarik konpetentzia, ordutegi eta abarren baitan) eta enpresetan lan posturik ordezkatzen ez dutela egiaztatuz. Gainera, langileen ordezkaritza informatua egotea ziurtatu beharko da.

4 LAN OSASUNA. behin-behinekotasunak eta prekarietateak eragin handia dute gazteen lan osasunean. Bestalde, askotan, enpresetan ez da behar bezain beste informazio ematen eta geroz eta errekurtso gutxiago daude lan osasunaren alde lan egiteko. Hori dela eta, eta zorionez zenbakiak murrizten badoaz ere, gazteen lan istripuak ugariak dira oraindik eta hauek ekiditeko egin beharreko lana handia da.

GAZTEEN LAN EGOERA BERRIEN INFORMAZIOA ETA EGIAZTATZEA

PRESTATZEKO ERA

Azken urteetan, eta bereziki gazteen langabezia tasak modu larrian gora egin dutenetik, gizartean zein politikan gero eta gehiago entzun daiteke "gazteentzako irtenbide magiko" batzuen inguruko iritzia: *hemen ezer topatzen ez baduzu, zergatik ez zoaz atzerrira lan bila?* Edo, *zergatik ez duzu zure kabuz zeozer muntatzen?*

Gazteen ekintzailetzak eta, bereziki, gazteen lan emigrazioak hartu duten eskalagatik, egoera hauek gazteriarentzako berriak direla esan daiteke, eta horregatik, garrantzitsua da hauek ikertu eta hausnartzea gazteen eskubideak bermatuko dituzten estrategia berriak lantzeko.

ZAILASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: prekarietatearen aurkakoa

OSAGAIAK:
*koilarakadatxo bat aurrekontu.
*500 g arreta.
*nahibeste isun.

1.GO PRESTATZEKO ERA *EMIGRATUTAKO GAZTERIA

Atzerrira joandako gazteen kopurua zenbatzeko erabiltzen diren erroldak haien arteko kontraesan larriak dituzte eta, aldi berean, atzerrira lan bila joan diren gazteen benetako egoera ezezaguna eta askotan ikusezina izaten jarraitzen du. Horrela, kontutan izanda gaur egungo emigrazioak beste garai batzuetan eman ziren emigrazio prozesuekin ezberdintasun nabariak dituela, emigrazio honek gazteengan dituen ondorioak ez dira guztiz ezagutzen.

Hala ere, behin baino gehiagotan entzun dugu nola gizarteak eta politikak atzerrira lan bila joatera animatzen gaituzten. Horregatik, eta gazteak egoera zaurgarri batean utzi ahal dituen erabaki bat hartzera ez bultzatzeko, beharrezkoa da gaiaren inguruko ikerketa sakonak bultzatzea eta hurrengo informazioa lortzea:

1** Herrialde bakoitzeko lan eskubide eta lan baldintzen egoeraren informazio erreal eta eguneratua, eta baita homologazio eta lan baimenak lortzeko eman beharreko urratsen informazioa ere.

Zeregin hau EURES sarearen baitan koordinatu daiteke, bertan herrialde ezberdinetako gazteen lan legeria eta lan eskubideen datu base bat eraikiz eta hau ulergarri eginez. Horrez gain, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak informazio hau jaso eta zabaldu beharko luke.

2** Lan bila emigratu duten pertsonen lan egoera eta egoera ekonomikoaren informazio erreala eta eguneratua.

Ikerketa hauek egiteak bi helburu izango lituzke: alde batetik, administrazioak atzerrira joandako gazteekin harremana izatea eta hauen egoera eta beharrak zeintzuk diren jakitea eta; bestalde, gazteak jaso dituzten herrietako administrazioekin harreman bat izateko oinarriak ezartzea, pertsona hauen eskubideak eta lan baldintzak hobetzen laguntzeko.

3** Lanagatik emigratu behar izan duten eta Euskadira itzuli diren pertsonek lan munduan eta arlo ekonomikoan topatu dituzten oztopoen informazio erreal eta gaurkotua.

Migrazio prozesuaren bueltan, gazteek galtzen dituzten eskubideak hausnartu beharko lituzkete ikerketa hauek gazteen migrazioa erregulatu eta haien itzulera bultzatzeko helburuaz. Lanbideren bitartez informazio hau jaso eta erraztu beharko litzateke eta, administrazioek eskubide galera hauek ekiditeko estrategiak ezarri beharko lituzkete lehenbailehen.

ERREZETAREN JATORRIA: Gazteen lan emigrazioa lantzen duen "SOSgazteak" txostena ikusi www.egk.org webgunean.

2. PRESTATZEKO ERA *GAZTE EKINTZAILEAK

Emigratutako gazteekin gertatzen den moduan, ez da orain arte gazte ekintzaile eta autoenplegatuen lan baldintzen eta egoeraren datu gehiegirik argitaratu. Haiek euren lan ordutegiak kudeatzen dituztenez, batzutan "autoexplotazioa" deitu izan den egoera batera heldu daitezke, izan ere, plazaratu diren datu ekonomiko urriek ez dute esperantza handirik ematen.

Hala ere, harekin datozen arrisku eta baldintzei jaramonik egin gabe, gero eta gehiago entzun daiteke ekintzailetza gazteen langabeziaren irtenbide izango dela. Honela, gazteak egoera zaurgarri batean utzi ahal dituen erabaki bat hartzera ez bultzatzeko eta **EKINTZAILETZA GAZTEEN PREKARIZAZIOA AREAGOTZEKO AITZAKI BIHURTU EZ DADIN**, berebizikoa da gaiaren inguruko ikerketa sakonak sustatzea eta hurrengo informazioa lortzea:

1** Gazte ekintzaile eta autoenplegatuen lan baldintzen inguruko informazio erreala eta eguneratua.

2** Gazte ekintzaileek bere gain hartzen duten arrisku eta zaurgarritasun mailaren inguruko informazioa.

Ikerketa hauen xedea gazteen ekintzailetza sustatzeko politika publikoak hobetzea izan beharko luke. Horretarako, autonomo gisa izen eman duten pertsonen kopurua, enpleguaren kalitatea ikuskatzen dituzten adierazleak erabili beharko lirateke.

Azkenik, autonomo faltsuen errealitatea hausnartu denean, egoera larri bat plazaratu da eta honek kontratatua egon beharko lukeen jendearen eskubideen urraketa maila adierazten du. Horregatik, lehen aipatu bezala, beharrezkoa da autonomo faltsuen ikuskaritza programa bat martxan jartzea, **EKINTZAILETZA GAZTEEN PREKARIZAZIOA SUSTATZEKO AITZAKI BIHURTU EZ DADIN.**

ERREZETAREN JATORRIA: Gazteen ekintzailetza lantzen duen "Gazte ¿emprendes o empierdes?" txostena ikusi www.egk.org webgunean.

ERREZETA BEREZIAK

EKINTZA POSITIBOA SUSTATZEKO NEURRIAK

GIZARTE KLAUSULAK ETA GAZTERIA KONTRATAZIO PUBLIKOAN

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: ekintza positibokoa

OSAGAIAK:
*kontu apur bat.
*2 kilo eztabaida
*nahibeste elkar ulertze.

PRESTATZEKO ERA

Administrazio publikoen baitan zerbitzuak eta obrak kontratatzeko prozesuetan, gizarte politiken irizpideen barneratzea bezala definitzen dira *Gizarte Klausulak* (GIZATEA). Besteak beste, honek esan nahi du administrazioak zerbitzu edo lan bat kontratatzen duenean, lan hori egingo duen enpresak, gizarte bazterkerian erortzeko arriskuan dagoen edo gizarteratze zailtasunak dituen kolektiboetako pertsonak kontratatu behar dituela definitutako zenbateko batean.

Administrazio gehienek sinatu dute *Kontratazio Gizarte Klausulen* (KGK) dokumentu bat edo beste, eta hauetan laneratze zailtasunak dituzten kolektiboak barnera-tzen dira. Dena den, gazteria ez da beti bertan islatzen edo islatzeko moduak, prekarietate egoeran dauden gazte asko kanpoan uzten ditu.

Gaur egun, *Gizarte Klausuletan* zein kolektibo sartu eta zein ez sartu eztabaida gaia da hainbat arrazoiengatik. Esate baterako, gehienetan langabezian egotea bete beharreko baldintzetako bat da eta horrek behin-behineko langileak kanpoan uzten ditu. Edo erroldatuta egotea derrigorrezkoa da eta horrek lan mugikortasuna mugatzen du.

Proposamen honekin mahaigaineratu nahi dena beraz, **gai honen inguruko eztabaida publiko bat irekitzeko beharra da. Honetan gizarteak parte hartu beharko luke eta helburua gizarte klausula hauek pertsonentzako aukerak handitzea izango litzateke, ez aukerak murriztea.**

Honen harira, *Gizarte Klausulen* barruan gazteria kolektibo gisa barneratzerakoan kontuz ibili behar da kolektibo honen beharrak ondo islatzeko. Hona hemen baloratu beharreko hainbat gako:

*** GAZTERIAREN PROFILA** KGK-ETAN.

**** KONTRATAZIO MOTA** KGK-ETAN.

***** PARTE-HARTZEA** KGK-K EZARTZEKO BATZORDEETAN.

GAZTERIAREN PROFILA KONTRATAZIORAKO GIZARTE KLAUSULEN BAITAN

Normalean KGK-en barne gazteria agertzen denean, "epe luzeko langabezian izandako gazteak" edo "6 hilabete baino gehiago langabezian izandako gazteak" bezala agertzen da, beste kolektibo edo adin tarteekin gertatzen den moduan.

Baina tamalez, **gazteen lan arazoak langabeziaz haratago doaz**, eta horregatik, *Gizarte Klausulak* gazteen errealitateari egokitu beharko lirateke, oztopoak murriztuz.

Alde batetik, 10 gaztetik 6k haien lan postuetan gainkualifikazioa pairatzen dutela kontutan hartu behar da. Modu honetan, langabeziaren klausula bere horretan mantenduz, gazte asko geratzen dira haien ikasketen mailara egokitzen den lan bat aurkitzeko aukeratik urrun (adibidez: kalean, erakunde batentzako bazkideak bilatzen lan egiten duen eta unibertsitate ikasketak dituen gazte bat). Ondorioz, honek lan bilaketarako motibazioa murriztu dezake, edozein lan onartuz administrazio publikoak ematen dituen aukera hauetatik kanpo ez geratzeko.

Horrez gain, klausula hauek erabiliz sortzen diren lan postuetan kontratatzen den jendea lan postuari dagokion ikasketa maila duela ziurtatzea beharrezkoa da (ez duela gainkualifikaziorik pairatuko), eta bereziki, kualifikazio baxuenak dituzten gazteei so egin behar zaie haien laneratzea errazteko.

Azkenik, gazteek pairatzen duten behin-behinekotasuna eta jardunaldi murriztuen kopurua ikusita, langabezian egotea baldintza bezala erabiliz gero, gazte asko geratuko lirateke kanpo. Lehenik eta behin, lan bat duen edonor aukera honetatik kanpo geratuko litzateke, lan hori oso prekarioa eta bizitzeko nahikoa ez bada ere. Bestalde, sei hilabete edo gehiago langabezian eraman arren, lantxo txikiren bat onartu duen edonor kanpo geratuko litzateke baita (lan hori onartuta kontua Otan jarriko baita).

Horregatik guztiagatik, baliteke hobe izatea profil malguagoak ezartzea:

*** Prekarietatea aurrikusten duten profilak:** adibidez, gazte langabetu edo %33ko jardunaldia baino baxuagoa duten gazteak.

*** Langabezia egoera ezberdinak aurrikusten dituzten profilak:** adibidez, azken sei hilabeteetan 15 egun baino gehiago lan egin ez duten gazteak.

KGK-ETAKO KONTRATAZIO MOTA

Orokorrean, KGK-ek ezartzen dutenez, hauen barne dauden kolektiboetako pertsonak zerbitzua edo lana irauten duen bitartean kontratatzea eskatzen da. Baina, kontutan hartzen baldin bada administrazioetan azpikontrataziorako eskaintzen diren zerbitzu eta lanak eta hauen behin behinekotasuna, horrek esan nahi du kolektibo hauen lan egonkortasuna ez dela bermatzen.

Hortaz, komeniko litzateke kontratazioa eskatzen duen enpresako langileen lan baldintzei so egiten hastea eta baloratzea zenbatek dituzten baldintza egokienak eta zenbat diren KGK-etako kolektiboen parte. Gehien bat, eskatutako lanak gauzatzeko kontratazio gehigarri gehiegirik egin behar ez diren zerbitzu eta lan kontratazioetan.

KGK-AK EZARTZEKO BATZORDEETAN PARTE HARTZEA

Administrazio eta gobernu bakoitzak haien erara ezartzen dituztenez KGK-ak, beharrezkoa da hauek erabakitzen diren batzordeetan gazteria ordezkatua egotea maila administratibo ezberdinetan. Horretarako, gazteria sailak honen eguneroko lanaren barne gazteekin harremana izan eta gai hauek kontrastatzea izan beharko luke, antzemandako behar eta interesak batzorde teknikoetara eramateko.

ERREZETAREN JATORRIA:

Gasteizko *III Gazte Planaren* baitan, Kontrataziorako Gizarte Klausulak lantzen diren Ba-tzorde Teknikoan Gazteria Sailak parte-hartzea aurrikusten zen.

*Atal honetako hausnarketa Gasteizen 2014ko Urrian EGK-k antolatutako *Hiruburuetan* jaso zen, bertan gazteak, teknikariak eta politikariak gaiaren inguruan eztabaidatzeko batu zirelarik.

NEURRI OROKORRETAN GAZTEENTZAKO KUOTAK

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: ekintza positibokoa

OSAGAIAK:
*bi edalontzi aurrikuspen.
*300 g emaitza eta ebaluaketa.
*bi koilarakadatxo anistazun.

PRESTATZEKO ERA

Hala ere, espresuki gazteriari zuzendurik ez dauden enplegu plan, programa eta politiketan, eskaintzen diren aukeretatik, gazteentzako kopuru bat gordetzea komeni da. Kopuru hau, gazteak lanerako adina duen gizartearen horrenbesteko ehunekoa izan, hainbestekoa izan beharko liteke gutxienez. Gazteriari interes bereziko kolektiboen indarra eman eta hauek lehenetsi nahi izatekotan, ehuneko handiagoa ezarri.

Hau gazteen aukera berdintasuna sustatzeko egingo da. Adibidez, programa baten parte izateko orduan, lan esperientzia baloratzen bada, gazte asko geratuko dira kanpoan, haien lan esperientzia urriagoa izateko aukera gehiago dagoelako eta, horrenbestez, beste adin talde batzuk baino aukera gutxiago izango dituzte. Modu honetan, gazteentzako kupo bat gordetzeak, gizarte talde honek aukera berdintasunean parte hartzea bermatu eta programa horretatik ez baztertzea ziurtatuko luke.

ERREZETAREN JATORRIA:

Gazteei zuzenduriko horrelako neurririk ez da ezagutzen kontratazio programen barne. Dena den, formazio programetan badago gazteei zuzenduriko kupo bat gordetzeko aukera Vitoria-Gasteizko *III Gazte Planaren* eskutik.

BELAUNALDI ARTEKO ORDEZAKAPENA

ZAILTASUNA: ***
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: ekintza positibokoa

OSAGAIAK:
*3 kg. ideia berri.
*200 g ezagutza eskualdatze.
*edalontzi bat etorkizun.

PRESTATZEKO ERA

Bai administrazio publikoan eta baita enpresa pribatuan ere langileen zahartze prozesua oso aurreratua dago eta honek ez gu gazteen lana edo haien enplegagarritasuna bultzatzen laguntzen. Bestalde, lan munduan belaunaldien arteko ordezkapena emateko egiten diren esfortzuak, ez dira nahikoak eta gainera, bizitzan zehar lan egin beharreko urteen kopurua gero eta altuagoa da, bai jubilazio adinaren igoeragatik, baita jubilazio azkarrerako programak murriztu izanagatik ere.

Horregatik beharrezko egiten da belaunaldi arteko ordezkapena bermatuko duten hainbat neurri martxan jartzea. Alde batetik, administrazioan EPEak deituz, haien bitartez pertsona gazteei enplegu publikoaren ateak irekiz, eta bestetik, enpresa pribatuan ordezkatze kontratuak (gazteleraz *contrato relevo* delakoa) sustatzeko programak garatuz.

ERREZETAREN JATORRIA:

Historikoki hainbat neurri jarri izan dira martxan belaunaldien arteko erreleboa emateko, baina krisialdi ekonomikoa dela eta, bertan behera geratu dira gehienak



GAZTEENTZAKO ORIENTAZIO ESPEZIALIZATUA

ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOETAN

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: ekintza positibokoa

OSAGAIAK:
*zentzutasun tanta batzuk.
*2 kg informazio.
*edalontzi bat lankidetza.

ERREZETAREN JATORRIA:

Gaur egun ez da azaldu den neurriaren moduko programarik garatzen (unibertsitateetan dauden Lanbide bulegoak akaso), Europar Batasunak gomendatutako Gazte Bermearen ildo bat baldin bada ere. Hortaz, beharrezkoa da orientatzaile profesionalek gazteriaren arloan formazio berezia jasotzea, haien lana ahalik eta hoberen garatu ahal izateko. Gomendagarria litzateke, behintzat, lan orientazioa egiten den bulego bakoitzean gazteria arloan espezializatutako pertsona bat egotea.

PRESTATZEKO ERA

Lan bila dagoen orok orientazioa jasotzeko eskubidea du, hala ere, gazteek arreta espezializatu bat behar izatea bi gako ezberdinen hausnarketatik ondorioztatu daiteke:

1** Lan bila dagoen gazteriaren zati handi bat zuzenean ikasketetatik lan mundura igarotzeko bidea egiten ari da. Beraz, berria zaion mundu horretara sartzeko orientazio espezializatua behar izatea gerta daiteke, izan ere, lan mundua oso aldakorra da.

2** Kontratatzeko dauden hamaika eredu ezberdinez gain, gazteei zuzenduriko kontratazio formula berezi, programa eta plan asko daude: bekak, praktikak, erasmus, Leonardo, ikerketa proiektuak, lankidetzak, eta abar.

Beraz, gazteei zuzenduriko eskaintzek oso forma ezberdinak izan ditzakete eta hauen zehaztasun eguneratuak ezagutzeaz gain, bata edo bestea aukeratzerako orduan, beharrezkoa da bakoitzak barneratzen dituen lan eskubide eta eginbeharrak zeintzuk diren jakitea. Horretarako, ezinbestekoa da informazio hau guztia izango duten orientatzaileak egotea, pertsona hauek gazteriaren egoera berezia ezagutuko dutelarik, gaur egun, prekarietateari lotuta dagoena.

Ondorioz, gazteei ematen zaien lanbide orientabideak, egon daitezkeen ibilbide anitzak aurrikusi behar ditu eta gazteen beharrei erantzun. Hauek dira orientabide honi proposatzen zaizkion funtzioak

Informazioa >> Orientazioa >> Aholkularitza >> Kudeaketa >> Neurketa >> Jarraipena

1* Informazioa: gazteentzako erreferentziazkoak diren pertsonak egotea eta hauek informazio gaurkotua edukitzea.

2 Orientazioa eta aholkularitza:** gazteriaren egoera ezagututa eta haientzako dauden programa berezien zehaztasunak jakinda, gazte bakoitzaren gaitasunak ebaluatzeko gai izan eta hauek ardatz hartuta programa bat edo bestera bideratzea aholkatzea (ezagutu izan dira zenbait kasu zeintzuetan orientatzaileak ez zekien Leonardo beka bat zer zen edo Youth Pass baten eginkizunak zeintzuk diren). Halaber, orientatzaile hauek lurralde maila ezberdineko programen artean zubi lana egitea beharrezko ikusten da: udal maila, lurralde maila edo tokian tokiko programak, estatu mailako programak, Europa mailako programak, eta abar.

3* Kudeaketa:** programa ezberdinetan izena emateko laguntza eta eskakizunak bete eta jarraitzeko laguntza.

4** Neurketa eta jarraipena :** behin gazteek lan bat lortuta honen jarraipena egin: zer nolako lana den, zein arazo dauden, zein kontratazio mota... Pertsona hauek berriz ere langabeziara itzultzekotan, aurreko lanaren lan baldintzen jarraipena egin (lan osasuna, eta abar).

GIZARTE LAGUNTZAK
ESKURATZEKO ERRAZTASUNAK

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: ekintza positiboa

OSAGAIAK:
*3 kg adinagusi.
*bi koilarakadatxo independentzia.
*sobretxo bat eskubide.

PRESTATZEKO ERA

Langabeziak ondorio latzak izan ditzake pertsonengan, bereziki, errekurtso ekonomikoen faltagatik haien bizi proiektu propioa ezin garatu eta bazterketa arriskuan egon daitezkeen pertsonengan. Honek suposatzen duen zaurgarritasuna murrizteko helburua dute zenbait gizarte laguntzek, besteak beste RGI (*Diru sarrerak bermatzeko errenta*), AGI (*Diru sarrerak bermatzeko laguntzak*) edo AESak (*Gizarte larrialdietarako laguntzak*).

Alabaina, laguntza hauek eskatzeko adin jakin bat izan behar da eta horrek gazteriaren zati bat kanpo uzten du, 18-23 urte arteko gazteak alegia. Honek gazteek haien familiekiko duten menpekotasuna denboran luzatzen du, izan ere, 25 urteetatik berako pertsonengan baitago langabezia tasarik altuena.

Baldintza honi gazteriak laguntza hauek eskatu ahal izatea zaila egiten duten beste batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola, errolda antzinatasuna. Izan ere, hauek lanagatik edo ikasketak burutzeko herriz mugitu behar izan diren gazteak kanpo uzten ditu itzultzen direnean. Horrez gain, denbora batez gurasoen etxetik kanpo bizi izana eskatzen da, eta horrek emantzipatzeko aukerarik izan ez duten gazteak ere kanpoan uzten ditu.

Hori dela eta, gazteek laguntza hauek aukera berdintasunean jasotzeko aukera izan dezaten, zenbait oztopo kendu beharra dago. Hau egiteak, gazteriaren egoera hainbat arlotan hobetuko luke: alde batetik, familiarekiko menpekotasun ekonomikoa murriztuko luke menpekotasun hau negatiboa den kasuetan. Bestetik, langabezia eta prekarietateagatik arriskuan dagoen gizarte kolektibo baten zaurgarritasun maila murriztuko luke eta, azkenik, gazteen egonkortasun ekonomikoa hobetuko luke, azken finean, prekarietatea eta gehiegizkoak diren lan-baldintzen aurrean negoziazio gaitasuna handituz.

NEURRI AKTIBOAK

INDARRA EMATEN DUTEN

ERREZETAK

INDARRA EMATEN DUTEN ERREZETAK KONTRATAZIOAREN SUSTAPENA

GAZTEEN KALITATEZKO KONTRATAZIOARI LAGUNTZAK

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: neurri aktiboa

OSAGAIAK:
*errealitate dosi bat.
*nahibeste kotizazio.
*3 kg etorkizun.

PRESTATZEKO ERA

Enplegu planek kontratazioa sustatzeko programa bereziak gehitu ohi dituzte haien baitan. Tamalez, programa hauek gazteei zuzentzen zaizkienean, kontrataziorako erabiltzen diren formulak ez dira kontratu mugagabeak edo behin-behineko kontratu normalak, eta aldiz, praktika eta beka ereduak erabiltzen dira.

Diru publikoz ordainduriko neurrietatik kontratazio formula bereziak kentzeko programa proposamenaren harira, azken formula hauek enplegu planetatik ezabatu beharko lirateke: bai lehen enplegu programetatik, baita atzerrira lanera joateko programetatik edo espezializazio programetatik ere. Hortaz, **hitzarmen kolektiboak babestutako kontratazio estandar bat erabili beharko litzateke.**

Ez-ohiko kontratazio formula hauekin lehenbailehen bukatzea komeni baldin bada ere, haiek kentzeko bidean, edozein beka edo praktika diru publikoz laguntzekotan, laguntza honek bete **beharreko egonkortasun klausulak barneratu beharko lituzke**. Hau da, dirulaguntza hauek jasoz gero, eta behin praktika edo bekaren epea bukatuta, enpresak bere kabuz langilea kontratatu beharko luke. Horrela ez denetan, dirulaguntza itzuli eta diru publiko hau gazteen lan baldintzak hobetzen lagunduko duen beste kontratazio bat laguntzera bideratu beharko litzateke.

Edonola ere, era honetako lan harremanak ez lirateke inolaz ere baimendu behar enpresako lanpostu bat estaltzeko izango bada, eta hau ikuskatu beharko litzateke.

Azkenik, beharrezko dirudi diruz laguntzen diren enpresen balantze ekonomikoei so egitea. Enpresek haien diru-sarrera propioekin kontratatzeko nahikoa dirurik izango balute, aproposena haien kontu egitea da, eta ez diru publikoa erabiliz.

Gogoratu beharra dago, estatistikoki gazteriak orokorrean gizarteak baino baldintza kaskarragoak izateaz gain, pobrezia egoeran dauden 10 pertsonetatik 6k 35 urte baino gutxiago dituztela dioten datuak daudela. Honek gazteek bazterkeria arriskua pairatzea suposatzen du eta, horregatik, beharrezkoa da gazteen lan aukera eta lan baldintza duinak sustatzea, bereziki gizarte bazterkerian dauden gazteenak (oinarrizko gizarte zerbitzuek ezarritako baldintzak).

ERREZETAREN JATORRIA:

Bizkaiko Aldundiaren *Gazteen Enplegu Plana*ren aurreko urteetako deialdien baitan kontratazio estandarra sustatzeko neurri bat zegoen, gazteei zuzendurik ez zegoena. Hortaz gain, gazteak praktiketan kontratatzea sustatzen zuen beste neurri bat zegoen, diru gehiago eskaintzen zuena kontratazioaren neurriak baino). Azken deialdian, aldiz, gazteei zuzenduriko praktika kontratuen neurriak, kontratazio estandarra barneratu du.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren *Lehen Aukera* programak bi urtetan izan duen aldaketa, nabarmena izan da: praktika ez laboralak sustatzetik, praktika kontratuak eta kontratu mugagabeak sustatzera pasa da. Honek erakusten du azken urteetan eman den norabide aldaketa, gazteek egindako aldarrikapenei esker lortu dena hein handi batean.

LANAGATIK

EMIGRATUTAKO GAZTEAK ITZULTZEKO LAGUNTZAK

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: neurri aktiboa

OSAGAIAK:

*nahibeste aukera.
*2 litro pazientzia.
*3 kg desegindako maleta.

PRESTATZEKO ERA

Ezegonkortasunak eta prekarietateak baldintzaturiko testuinguru batean, lan emigrazioa gero eta normalago bihurtzen ari da gazteen artean. Askotan burmuinen ihesaren eta honek gizartean izango dituen ondorioetaz hitz egin da. Alabaina, atzerrira lan bila doazen gazteek ikasketa maila altua edo baxuagoa baldin badute ere, administrazioak askotan behartutakoa den egoera honi so egin beharko lioke eta irtenbideak ipini, eta burmuinen ihesaz baino, giza kapitalaren ihesa-z hitz egin.

Beraz, **lanagatik emigratu duten gazteak itzuli ahal izateko aukerak sustatu beharko lirateke hemen geratzea erabaki dutenei oztopoak jarri gabe**. Horretarako, zuzenean gazte hauek berriz erakartzeko eskaintzak sustatzen dituzten programak garatzeaz gain, modu "naturalago" batean pertsona hauen itzulera sustatzen duten beste neurri batzuk martxan jarri beharko lirateke.

Itzultzeko laguntzak garatu ahal izateko, alde batetik, emigratutako pertsona hauekin noizbehinkako kontaktua izan beharko litzateke, eta horrela, gazte hauen egoera eta beharren inguruko informazio zuzena izan. Bestalde, behin itzulita, Gizarte Seguran-tzan atzerrian lan egindakoa erregulatzen lagundu beharko litzaieke, egin beharreko tramiteen inguruko informazioa erraztuz eta prozesuetan lagunduz, epeak irekiz, informazio elkartrukea bermatuz, eta abar.

ERREZETAREN JATORRIA:

Ekuadorreko *Itzulera Plan Integrala*, Ekuadorreko *"Manuela Espejo" itzulera plana*, Ekuadorreko *"Ecuador Saludable, vuelvo por tí"* edo Argentinako *"Raíces" zientzialarien itzulera programa.*

INDARRA EMATEN DUTEN ERREZETAK ENPLEGURAKO FORMAZIOA

FORMAZIOA LANERATZEA BERMATZEN DUTEN SEKTOREETAN

ZAILTASUNA: ***
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: neurri aktiboa

OSAGAIAK:

*edalontzi bat errealitate.
*3 kg emaitza ebaluaketa.
*200 g kontratazio konpromezu.

PRESTATZEKO ERA

Enplegua sustatzeko planek, historikoki, enplegurako formaziorako neurriak barnebildu dituzte. Gaur egun, eskaintzen diren formazioetako asko zuzenean antzinako programa hauetatik jasotako oinordekoak dira eta batzuetan ez dira gaur egungo errealitatera egokitzen, eskainitako formazioak ez baitu lan munduan sarbiderik (aurreko enplegu planen emaitzak faltan izanda ezin izan da zenbatu arazo honen zabalera).

Hala ere, gazteen enplegu planen hurrengo deialdiei begira, formazio estrategia erreal bat ezarri beharko litzateke, zeinek gazteen laneratzea benetan sustatzen duen. **Aurreko urteetako programen ebaluaketa egitea funtsezkoa da, baita kontrataziorako konpromisoa duten formazio programak garatzea ere.**

GAITASUNEN AITORPENA

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: neurri aktiboa

OSAGAIAK:
*nahibeste birziklapen.
*300 g zoriontasun.
*5 kg gaitasun.

PRESTATZEKO ERA

Etxebizitzaren burbuilak eztanda egiterakoan azaleratu zen krisi ekonomikoak, gazteriaren zati adierazgarri bati eragiten dion egoera berezitua mahaigaineratu du: ikasketak bukatu gabe lanean jarri eta orain langabezian geratu diren gazteen laneratze zailtasuna. Fenomeno hau bereziki eraikuntzan zentratu izan da eta Euskadin beste lurralde batzuetan baino neurri txikiago batean eman baldin bada ere, aitortutako formaziorik ez duten eta haien lan sektorean aurrikuspen kezkagarriak dituzten gazte langabetu hauen egoera, landu beharreko gai bat da.

Egoera honez gain, beste batzuk hartu behar dira kontutan, hala nola, gazte askok ikasketak ordaindu ahal izateko lan egin behar izaten dutela edo behin ikasketak bukatuta haien lehen lanaren bilaketa ikasketa gehiagorekin koordinatzen dutela.

Bukatu gabeko ikasketa hauek edo ikasi bitartean lortutako praktika profesionalek pertsonengan gaitasunak garatzen laguntzen dute eta haien laneratzea errazten dute. Hala ere, ez Lanbidek ezta enplegu programa publikoetan ez dira bukatu gabeko ikasketetan gureganatutako gaitasunak aitortzen, eta ikasketek 5 urteko luzera ere izan dezakete. Hortaz, gazteek gaitasunak baldin badituzte ere, hauek ezin dituzte justifikatu kurrikulumean.

Egoera honek gazteek profesionalki edo pertsonalki garatutako gaitasun eta trebetasunak ezkutuan geratzea sustatzen du. Aldiz, hauek ofizialki aitortzeak gazte hauen laneratzea erraztuko luke.

Honen aurrean, hurrengo puntuak proposatzen dira:

1** Alde batetik, lanean hasteagatik ikasketak utzi zituzten pertsonei titulazio ofizial bat eskuratzea bermatuko dien **gaitasun aitorpen prozesuak ireki** behar dira. Bestetik, pertsona hauen beharrizanetara egokitutako formazio programak garatu behar dira, haien gaitasunak birziklatu eta laneratze hobea duten beste sektore batzuetan txertatu ahal izateko.

Horrez gain, ikasketa mundura berriz ere sar-tzeko bidea ireki behar zaie eta **profesionaltasun ziurtagiriak lortzeko prozesuak azkartu beharra dago.** Horretarako, deialdi berriak ireki, maiztasun handiagoarekin, epe luzeagoekin eta lan arlo gehiagoetan. Edonola ere, gaitasunen aitorpen proiektu hauek urtean zehar jarraiak eta profesio guztietara irekiak egotea baloratu beharko litzateke.

2** Lanbideko zerbitzua gazteentzako laneratze erreminta erabilgarri bat izan dadin, **enplegu zerbitzu publiko honek baloratu beharko luke bukatu gabeko ikasketetan gazteek bereganatutako gaitasunak aitortzea.** Izan ere, honek haien gaitasunekin harremana duten lan eskaintza gehiagotan sartu ahal izatea bermatuko lieke.

3** Bereziki garrantzitsua da **ikasketa ofizialetan zein heziketa ez formalean garatutako gaitasunak kontutan hartzea**, azken hau, Europa mailan oso ondo baloratutako puntua da.

4** Praktika kurrikular eta kurrikulu kanpoko **praktikak lan esperientzia bezala baloratzea**.

INDARRA EMATEN DUTEN ERREZETAK EKINTZAILETZA

HELBURU KUALITATIBOAK DITUZTEN NEURRIAK

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: neurri aktiboa

OSAGAIAK:

*2 kg irudimen.
*1 kg ikerketa.
*edalontzi bat errealitate.

PRESTATZEKO ERA

Ekintzailetzaren arloan martxan jartzen diren neurrien arrakasta edo porrota neurtzerako orduan, normalean, Gizarte Segurantzan emandako autonomoen altak, IAE zergaren ordaina edo beste errolda batzuetan gora eginiko zenbakiak begiratzen dira, altan emate soilak ekintzailetzaren arrakasta gisa ulertzen baita. Haatik, neurketa erreminta hauek ez diete "ekintzaile gazteen" lan baldintzei so egiten. Horrela, pertsona hauek astean 7 egunetan eta egunean 12 ordutan lan egiten badute ere edo fakturak ordaintzeko nahikoa dirurik lortzen ez badute ere, errolda hauetan izena ematea, ekintzailetza arloan datu positibotzat hartzen dela esan nahi du.

Hainbatetan esan den moduan, **ekintzailetza ezin da gazteen prekarizazioa bultzatzeko aitzakia izan, eta horregatik, beharrezkoa da ekintzailetza sustatzerakoan, gazteen baldintza kualitatiboen eta haien lanaren kalitatearen hausnarketa egitea.**

Honen harira, sortutako diru sarrerak eta aktibitatea izateak sortzen dituen gastuen arteko orekaren inguruan hausnarketa egitea komeniko litzateke, kotizazio oinarria sortutako errenten arabera kalkulatzeko aukera aztertuz, bai diru sarrera txikietarako eta baita handietarako ere.

OINARRIZKO

ERREZETAK OROKORTASUNAK

ZAILTASUNA: *****
EGOSTE DENBORA: *****
MOTA: orokortasuna

OSAGAIAK:

*adostasun dosi bat.
*nahibeste aukera berdintasun.
*ezberdintasunetan baxua.

PRESTATZEKO ERA

Tamalez, gazteen langabezia ezin daiteke soilik gazteei zuzenduriko neurri gutxi batzuen bitartez konpondu. Beraz, neurri espezifiko hauez gain, gazteen enpleguak bere alde egiten duen testuinguru bat behar du, bertan gazteek aukera berdintasunean lan munduan murgiltzeko aukera izateko.

Bada, egoera hau hobetzen lagunduko luketen hainbat faktore zerrendatzen dira jarraian.

ENPLEGU PUBLIKOA SORTU

Administrazioak berak, lan postuak bere barne sortzearen bidez gazteek baldintza berdintasunean enplegu bat lortzeko aukerak irekitzea berebizikoa da. Haatik, hainbat informazio iturriren aburuz, azken urteetan ireki diren lan postu publiko deialdietan enplegu gutxi eskaini dira eta gehienetan jubilazio tasa berrezartzeko ere ez dute balio izan. Hortaz, ate hau gero eta itxiago dago puntuak ematen dituen lan esperientzia gutxi duten gazteentzako.

Gainera, administrazioaren ardura da kalitatezko enpleguak sortzea. Eta ez da kasualitatea administrazioan lan egiten duten gazteen erdiak, gutxi gorabehera, behin behineko kontratuekin lan egitea.

ENPLEGUAREN BANAKETA

Lan ordu extrak eta gehiegizko lan karga gazteriaren enpleguaren baldintza bat da askotan. Honek lan postuetan gehiegizko esfortzua egiten duten pertsonen osasunarengan ondorio larriak ditu eta, zoritxarrez, lan extra hori egiteko aukera ez duten pertsonengan ere. Gauzak horrela, enpleguaren banaketaren egokitasunaren inguruko hausnarketa bat bideratu beharko litzateke, bereziki, lan orduen jaitsiera eta lan kargaren banaketari so eginez.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ETA HITZARMEN DUINEN SINADURA

Gaur egun, hainbat eta hainbat lan hitzarmen kolektibo baliogabetu dira, besteak beste, lege aldaketa bat egon izan delako ultraaktibitatea delakoaren inguruan. Egoera honek enpresetan urteak lanean daramatzan jendea eta orain kontratatzen diren pertsonen arteko (asko eta asko gazteak) ezberdintasunak sorrarazten ditu: soldata eskala bikoitza (berriek gutxiago kobratzen dute), lan orduen eskala bikoi-tza (berriek ordu gehiago lan egin) edo lan egun kopuruan.

Egoera honek gazteek lan munduan duten egoera gero eta malguago eta ezegonkorragoa izatea bideratzen du. Horri, gazteei zuzenduriko kontratazio formula berezien erabilera gero eta ugariagoa dela gehitu behar zaio (bekak, praktikak, praktika ez laboralak, eta abar), eta guzti horrek gazteak lan munduan babesik gabe egotea ekartzen du. Horregatik, hurrengo puntuak proposatzen dira:

1* **Negoziazio kolektiboa ematen den testuinguruetan eta enpresa komiteetan gazteen ordezkaritza bermatzea**, horrela, gazteen errealitatea, beharrak eta interesek islada izango dutelakoan.

2** **Lurraldekako hitzarmen kolektibo sektorialak sinatzea sustatu,** betiere, beherago zehazten diren gakoak barneratzea bermatzen delarik.

3*** **Kontratazio formula berezien erabilera mugatzea hitzarmen kolektiboen barne** dauden enpresetan, horrela, enpresa hauek langile guztiak berdin tratatzea bermatuz. Edonola ere, hitzarmen hauen xedea praktiketan dauden pertsonak langile "estandarrak" direnekin parekatzea izan behar du, bai soldata kontuetan, eta baita lan eskubideen alorrean ere.

4*** Soldata eta lan orduen **eskala bikoitzak ekiditeko neurriak ezarri.**

ARRAKALA EKONOMIKOAREN MURRIZKETA

Gazteriaren prekarietatearen gakoetan garrantzitsuenetako bat gazteek egiten duten lanaren truke jasotzen duten soldata baxua da. Izan ere, gazteen eta orokorrean gizartearen soldaten arteko ezberdintasuna urtean 8.000euro inguru da, emakume gazteentzako oraindik egoera txarragoa izanik. Krisi ekonomikoan zehar gazteen lan baldintzak kaskartzeaz gain, gehien irabazi eta gutxien irabazten dutenen arteko arrakala ekonomikoa areagotu izana gehitu behar zaio.

Honela, gazteen laneratzea baldintza eta aukera berdintasunean sustatu eta gizarteak sortutako aberastasuna justiziaz banatze aldera, gai honen inguruko eztabaida sustatu behar da, alegia, soldatei mugak ipintzea, bai goialdetik eta baita behealdetik ere. Muga hauen helburua pertsonen arteko arrakala ekonomikoa murriztea izanda, enplegu bat dutelarik pobrezian bizi diren pertsonen baldintzak hobetzen lagunduko luke.

LAN EGOERATIK HARATAGO ESKUBIDEAK BERMATZEN DITUZTEN GIZARTE ZERBITZUAK GARATU

Azkenik, gazteak eskubide osoko subjektu izateko bidean, alegia, haien hiritartasuna aukera berdintasunean gauzatu ahal izateko bidean, gizarte kohesionatu bat sustatu beharra dago. Horretarako, kalitatezko gizarte zerbitzu publikoak bultzatu eta mantendu behar dira, enplegurik topatzen ez baldin bada ere, pertsonek eskubide guztiak bermatuak izan ditzaten.

Gaur egun, kasu askotan, gazteei sortzen zaizkien beharrak familiek asetzen dituzte, baina familien egoera gero eta latzagoa da, orokortzen ari diren prekarietate eta langabeziagatik. Horrela, eskubideak soilik bakoitzaren lan egoeraren araberakoak ez izatea sustatu beharra dago.

ERREZETA GEHIAGO EZAGUTZEN?

ii PARTE HARTU *ENPLEGUA ETA GAZTERIA* LAN TALDEAN !!

bizibaldintzak@egk.org



#GazteokEginaGazteontzat

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

www.egk.org

Diruz lagundu du:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA